

EUSKARAREN GINKANA. OINARRIAK.

Ongi etorri Euskararen Ginkana lehiaketara!

Kutxa Ekoguneak euskaraz eta euskararekin dibertitzeko antolatu duen lehiaketa da Euskararen Ginkana. Aurtengo hirugarren edizio honetan, lehen aldiz, taldekako lehiaketa izango da. Asteroko internet bidezko probetan puntuazio gehien batzen dituzten taldeak pasako dira San Telmo Museoan burutuko den lehiaketako final handira. Saria, euskararen aldeko proiektu baterako 3.000 euroko laguntza izango da. Elkartu eta animatu!

GAIA

Hizkuntza aniztasuna izango da aurtengo gaia eta beraz, gainditu beharreko probak eta galderak munduko zein Euskal Herriko hizkuntza aniztasunari lotuak izango dira. Munduko hizkuntza aniztasuna galtzen ari den honetan, hizkuntza eta kultura aniztasun handia aurki dezakegu gure herri zein auzoetan. Hizkuntza aberastasun honen erakusle izan nahi du Euskararen Ginkanak. Hizkuntza eta kultura aniztasun hau ezagutarazi, aitortu eta egoki kudeatzeak aukera berriak zabaltzen dizkio euskarari. Aldi berean, euskaldunok munduko hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpen handiena euskarari eustea eta euskara bestei ematea da.

LEIHAKETA GUNEA

Lehiaketan parte hartzeko: www.euskararenginkana.net

IRAUPENA

Lehiaketak bi fase izango ditu:

1. Fasea: INTERNET BIDEZKO FROGAK. Sei aste iraungo ditu fase honek, abenduaren 3an hasita. Webgunean, astero taldeek burutu beharreko proba bat argitaratuko da eta aste bete izango dute taldeek erantzunak bidaltzeko.

2. Fasea: FINALA. Urtarrilaren 25ean Donostiako San Telmo Museoan. Proposatutako probetan puntu gehien lortzen dituzten lau taldeak pasako dira finalera. Bertan erabakiko da nor den aurtengo talde irabazlea!

IZEN EMATEA

Lehiaketan parte hartzeko Euskararen Ginkanaren webgunean (<http://www.euskararenginkana.net>) eman behar da izena. Izen emate epea 2013ko azaroaren 8an hasi eta abenduaren 3an amaituko da.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Parte hartzea taldekakoa izango da.
- Talde, elkarte edo eragile bat ordezkatzeko duten 4-6 lagunekoko taldeak osatu beharko dira horretarako. (16 urtetik gora)
- Izena eman ahal izateko, webguneko formularioa betetzeaz gain, talde bakoitzak bideo labur batean grabatu beharko du taldearen eta babestu nahi den proiektuaren aurkezpen txiki bat.

PARTE-HARTZEA

1. Fasea. INTERNET BIDEZKO PROBAK

Izen ematea eta bideoa. Izen-emate formularioa egoki osatzen duten taldeak lehiatuko dira fase honetan. Izen-ematea gauzatzeko, aurkezpen bideoaren esteka itsatsiko da. Bideo honetan, taldearen aurkezpena egiteaz gain, Ginkanako sariarekin finantzatzeko lukeen euskararen aldeko egitasmoa aurkeztuko da, labur-labur (2 minutu inguruko bideoa). Aurkezten diren proiektu edo egitasmoak askotarikoak izan daitezke, aurrez martxan daudenak edo aurrerantzean burutu nahi direnak. Guztiak baina, euskararen aldeko ekarpena suposatu beharko dute, arloa edozein izanik ere: hezkuntza, aisialdia, kultura, helduen euskalduntzea, erabilera sustatzeko egitasmoak...

Internet bidezko probak. Izen-ematea egoki osatzen duten talde parte hartzaileek, abenduak 3tik urtarrilaren 16a bitartean www.euskararenginkana.net webgunean astero argitaratuko diren probak burutu beharko dituzte. Fase honetan proposatuko diren probek ez dute loturarik euren artean. Ez da beharrezkoa proba gainditzea hurrengoak egin ahal izateko.

Proba guztiak taldeetan burutzeko modukoak izango dira eta bakoitzak aurrez jakinaraziko den puntuatzeko irizpide bat izango du. **Astero proba bat proposatuko da** eta aste beteko epea egongo da erantzunak bidaltzeko. Taldeek burutzen duten proba bakoitzeko puntuak gehituz egingo da finalerako sailkapena. Egin gabe utzitako probengatik ez da puntuaziorik jasoko, baina hurrengoak erantzuten jarraitu ahal izango du taldeak.

www.euskararenginkana.net webgunean eta sare sozialetan emango da lehiaketaren eta taldeek egin dutenaren berri. Lehen fasea amaitutakoan, puntu gehien bildu dituzten lau taldeak pasako dira finalera. Berdinketa egonez gero, talde horien arteko zozketa egingo da.

2. Fasea. FINALA

Lehiaketako lehen fasean puntu gehien lortu dituzten 4 taldeen arteko lehiaketa izango da Finala. Donostiako San Telmo Museoa burutuko da urtarrilaren 25ean eta bertan proposatuko diren probetan puntuazio altuena lortzen duen taldea izango da Euskararen Ginkaren 3.edizio honetako irabazlea.

SARIA

Edizio honetan euskararen eta beraz hizkuntza aniztasunaren alde dagoeneko egiten den lana saritzea erabaki da. Sari nagusia beraz honakoa izango da:

3.000 euro talde irabazleak ordezkaturako talde, elkarte edo eragileak burutzen duen euskararen aldeko egitasmo bat finantzatzeko. Egitasmo edo proiektu hori izena ematerakoan taldeak aurkeztutakoa izango da.

Talde finalista guztiek gainera, **produktu ekologikoz osatutako otarre bana** jasoko dute finalean parte hartu izana saritzeko.

KONTAKTUA

Izen-ematea gauzatzeko edo proben inguruko zalantzak argitzeko, jarri harremanetan gurekin helbide elektronikoa honetan: euskararenginkana@ekogunea.net

ADOSTASUNA

Lehiaketa honetan parte hartzen duten taldeek arauak eta KUTXA EKOAGUNEAREN erabakiak onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dute. Erabaki horiek behin betikoak izango dira edozein alderdiri dagokionez. Aurkezten diren talde zein egitasmoen egokitasuna ontzat emateko eskumena izango du KUTXA EKOAGUNEAK, lehiaketaren oinarrietan azaldutako irizpideak kontutan hartuz. Lehiaketaren baitan aurkeztutako bideo eta irudiak Euskararen Ginkaren zabalpenerako erabili ahal izango dituzte antolatzaileek.

Izaera pertsonaleko datuak: Pertsona interesdunak emandako datuak dagokion prozedura edo jardueran aurreikusten diren helburuak betetzeko erabiliko dira, soilik eta eskusiboki. Aipaturako datuak ezingo dira, inolaz ere, hirugarrenen eskuetan utzi trataera edo lagapen modura, eragindakoak baimena eman ezean, edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legeko 6.2 eta 11.2 artikuluetan aurreikusten diren kasuren batean hala adierazi ezean (BOE 298 zenbakia, 1999ko abenduaren 14koa).

Aipaturako 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, datuen lagatzaileak edozein unetan erabili ahal izango du sarbide, zuzenketa, baliogabetze edo desadostasun eskubidea, horretarako dagozkion arauak betez.

Koordinatzailea:

Laguntzaileak:



donostia**kultura**.com



Ekogunea
kutxa gizarte ekintza